



IRUNGO MENDIZALEAK

TREKING GALIZIAKO KOSTALDEA PROGRAMA

2018 KO URRIAREN 6 TIK 15 ERA

Hilak 6 – Irteera.....	Hondarribia.....	8:30
	Irun (Gurutze Gorria).....	8:45
	Irun (Bixera).....	9:00
	Katea - Ventas.....	9:10
	Donostia (Lehengo Bus geltokia)....	9:30
	Los Tánagos.....	12:30
	Ordu eta erdi bazkaltzeko (Bakoitzak bere aldetik)	
	Los Tánagosetik atera.....	14:00
	Geldialdia Ribadeon (237 km) 30´.....	16:30 - 17:00
	Hotelera iritsi (154 km).....	18:45
	Afaltzeko ordua	21:00
	Gosaltzeko ordua.....	7:30

OHAR GARRANTZITSUA: Maletak autobuseko maletategian sartutakoan, hura itxita egongo da hotelera iritsi arte. (*Beste horrenbeste egingo da itzultzerakoan*)

Bakoitzak bidaiarako behar duen guztia igoko du bere eserlekura, NAN barne.

Hilak 15 - Itzulera

Gosaria.....	7:30
Maletak kargatzen hasi.....	8:15
Autobusa atera.....	8:30
Geldialdia Novellana - Santa Marina 30´.....	11:15 - 11:45
Los Tánagos (Nahitaezko geldialdia).....	13:45
Ordu eta erdi bazkaltzeko (Bakoitzak bere aldetik)	
Los Tánagosetik atera.....	15:15
Irunera iritsi.....	19:00

ETAPAK

Hilak 7 - 58. etapa Mugardos - Redes

21,1 km-ko etapa. Desnibela + 460 / - 460

Etapa laburraren aukera, 17,4 km. Desnibela + 400 /- 400

Etapan zehar geldialdi txiki bat egingo dugu Areseko plazan, inguruak ikusteko eta zerbait hartzeko. Kilometro bat aurrerago egongo da autobusa etapa laburra egin nahi dutenentzat. Redesen etapa bukatu ondoren denbora bat emango da XX. mendean itzuli ziren indianoek sortutako estilo kolonialeko herri polit hori ikusteko eta inguruko tabernetan zerbait hartzeko. BAINATZEKO AUKERA.




Hilak 8 - 59. etapa Redes - Ponte do Porco (Miño)

21 km-ko etapa. Desnibela + 462 / -465

Etapa laburraren aukera, 13,4 km. Desnibela + 349 /- 349

Etapa amaierako inguruak ez du ikusteko gauza handirik. Denbora bat emango da zerbait hartzeko eta hotelera itzuliko gara.



Hilak 9 - 60. etapa Ponte do Porco - Porto de Lorbé

18,6 km-ko etapa. Desnibela + 578 / - 578

Etapa laburraren aukera 2. zatia, 9,5 km. Desnibela + 349 / - 349

Portu honen inguruetan muskuilu batea ugari daude.

Portuko jatetxean izango dugu haiek dastatzeko aukera.

Ez dago hondartzarik.



Hilak 10 – 61. etapa Porto de Lorbé - Oleiros

20,6 km-ko etapa. Desnibela + 567 / - 570

Ez dago etapa laburra egiteko aukerarik.

Etapa hotelean bukatuko da.

Egun hau Maïteren atsedeen eguna da, eta horregatik ez dago etapa laburra egiteko aukerarik.

Santa Kristina hondartza hotelaren oinetan dago. 1.500 metrotik gorako hondartza bikaina, 2018. urte honetan bandera urdina saria jaso duena.



Hilak 11 - 62. etapa A Coruña - Arteixo

22 km-ko etapa. Desnibela + 428 / - 424

Etapa laburraren aukera, 12,3 km. Desnibela + 231 / - 203

Etapa hasieran jauzi txiki bat egingo dugu ibiltzeko oso atsegina ez den portu eremu bat saihesteko, eta A Coruña-ko Itsas Pasealekuan hasiko gara.

Etapa Sabón hondartzan bukatuko badugu ere, hura ez da bainatzeko egokia, industria poligonoko enpresa guztiek urak husten dituzten ibai baten bokalean dagoelako, eta horrenbestez, etapa amaitutakoan hotelera joango gara.



Hilak 12 - 63. etapa Arteixo - Carballo

23,3 km-ko etapa. Desnibela + 547 / -545

Etapa laburraren aukera, 11,5 km. Desnibela + 351 / - 347

Hondartza polit baten eta jatetxe baten ondoan amaituko da etapa.

Bikaina da Razo hondartza, itsaso irekian eta bandera urdinarekin, Baldaikoarekin elkartzen da eta lau kilometroko luzera baino gehiago dute bien artean.

Denbora luzea utziko da bakoitzak nahi duena egin dezan.



Hilak 13 - 64. etapa Carballo - Malpica

18,1 km-ko etapa luzea. Desnibela + 994 / - 948

Etapa laburraren aukera, 13,6 km. Desnibela + 713 / - 650

Etapa San Adrian ermitan bukatuko da, hirigunetik urrun.

Arropaz aldatu eta Malpica de Bergantiños herrira jaitsiko gara, hartatik paseak izango gara etapan, eta denbora bat izango dugu hotelera itzuli aurretik.



Hilak 14 - 65. etapa Malpica - Niñons

19,3 km-ko etapa. Desnibela + 665 / - 671

Etapa laburraren aukera, 10,1 km. Desnibela + 222 / - 284

Eskuoihala eraman hondartzako eremu batean oinutsik igaro behar izango baitugu agian.

"O Camiño dos Faros" deiturikoari dagokio etapa polit hau, bidea seinaleztatua dago eta itsasertzetik doa zati handi batean.

Iglesia de San Xoan de Niñons elizan bukatuko da etapa, hondartzatik kilometro batera. Inguruan garbitegi bat du urarekin. Etapa bukatutakoan hotelera joango gara.



OHARRA: PROGRAMA HONEK ALDAKETAK IZAN DITZAKE UNEAN UNEKO EGOERAK HALA ESKATZEN BADU

